

HERNANI kronika

2003 urtea
Abenduak 29
Astelehena
Alea: 976
www.kronika.net

Ongintza Patronatuko Lan eta Formazio saila zena Udalaren konpetenzia izango da orain

- Txema Mercadok zuzentzen duen Hezkuntza, Emplegu eta Formazio departamenduaren barruan geldituko da
- Orain arteko lan programak mantenduko ditu eta zerbitzuak anbulatorio zaharrean jarraituko du.

ORAIN artean Ongintza Patronatuaren ardura zen Lan eta Formazio programak bultzatzea eta horretarako sail berezia zuen. Hemendik aurreera, eta Plenoak aho batez hala erabakita, konpetenzia hori Hernaniko Udalarena izango da. Udalak uztailean erabaki zuen Hezkuntza, Emplegu eta Formazioa bilduko zituen komisio berria sortzea eta pauso horren barruan etorri da orain arte On-

gintzak gestionatutako konpetentziak Udalak gestionatzeko erabakia. Aldaketak eskatzen dituen tramiteak egin ondoren, Txema Mercado izango da Lan eta Formazio programen arduraduna.

Zerbitzua bere horretan

Jose Morcillok PSE-EEko bozeramaleak Joxan Rekondo Alkateari galdu zion aldaketa hau eta gero zerbitzua nola geldituko den. Alkate-

LAN ETA FORMAZIOAN DAUDEN PROGRAMAK

- Lanbide hastapenerako programa kotxea konpontzen ikasteko.
- Paroan denbora asko daramatenetako programa.
- Langai zerbitzuarekin elkarlanerako programa.
- Transpakkareko formakuntza profesionaleko zentroa ekipatu eta berritzeko programa.
- INEM zerbitzuarekin elkarlan programa.

aren erantzunaren arabera, Ongintzatik Udalerako konpetentzi aldaketa emanagatik, zerbitzuak bere horretan segituko du: orain arteko lekuak, Anbulatorio zaharrean, orain arteko programak mantenduko ditu eta orain arteko pertsonalarekin egingo du lan, Alfonso Gonzalez buru dela.

Programa gehienak Jauritzako Departamenduekin elkarlanean daude martxan. □



Joxan Rekondo Kardaberaren plakari oihala kentzen. Ekitaldian jende dezente bildu zen.

Agustin Kardaberaz idazleari buruzko jardunaldiak gaur eta bihar Biterin

- Gaur Jerardo Elortzak hitz egingo du Kardaberaren garaiko hizkuntza eta kulturaz, 19:00etatik aurrera.

ATZO bete ziren 300 urte Agustin Kardaberaz jaio zela, gaur egunean bere izena daramakien kalearen 25-garren zenbakian. Joxean Rekondo Alkateak kendu zion oihala *Aita Agustin Kardaberaz etxe honetan jaio zen* dion plaka berriari. Iñaki Sarelik egindako plakak Kardaberaren jaiotz eta heriotz urteak ere jasotzen ditu. Urteurrena medio, Eusko Ikaskuntzak eta Udalak Kardaberaren obra eta garaiari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte. Gaur arra-

tsaldeko 19:00etan, Jerardo Elortza Mondragon Unibertsitateko irakasleak Kardaberaren garaiko hizkuntza eta kulturari buruz hitz egingo du. Bihar, asteartea, bi hitzaldi izango dira: 19:00etan, Joseba Zuazo EHUniko irakaslearen esku: *Kardaberaz, iragana berri, oraina zahar eta geroan zer?* Eta, 20:00etan, berriz, *Las misiones populares en tiempos de Kardaberaz* Juan Madariagak, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslearen hitzaldia. □



Kantuz abesbatza larunbatean Milagrosan, eliz musika kontzertuan.

Kantuzek eliz musika kontzertua eman zuen

KANTUZ abesbatzak eliz musika kontzertua eman zuen larunbat iluntzean Milagrosa aretoan. Aretoa bete egin zen eta publikoak oso harrera beroa egin zion abesbatzak urtez urte egiten duen emanaldiari. □

Pasaiatik Donostiarra kostaz kosta

MENDIRIZ Mendik Pasaiatik Donostiarako ibilaldia antolatu du urtarrilaren 11rako. Paraje eder hori ezagutu nahi duenak hurrengo hilaren 8 arte du izena emateko epea. Zita goizeko 08:30-ean tren apeaderoan. □

Tabernarien bilera

HERNANIKO tabernariekin bilera egingo dute gaur Deportibo tabernan, 16:00etan. Bilerako gaia da soinuari buruzko normatiba berria. Bileran Gipuzkoako Ostalaritz elkarteko ordezkari bat egongo da. □

Saskibaloi torneoa

ASKATUAK, Atko UPV, BKL eta Iraurgik saskibaloi torneoa jokatuko dute gaur eta bihar kiroldegian. Gaur 19:00etan eta 21:00-ean kanporaketak jokatuko dira eta bihar 20:00etan finala. □

Ur jolasak piszinan

BIHAR 09:00etatik 13:00etara umeentzako jolasak izango dira igerilekuak: gaztelu puzgarriak eta abar. Sarrera debalde eta ordu horretan piszina itxita egongo da publikoarentzat. □

Kontzentrazioa gaur

GORKA Loran eta Garikoitz Arruarte gaur pasako dira epailearen aurretek. Gauero 20:00etan kontzentrazioa egingo da. □

Bertso antzerkia atzeratu

EGURALDI txarragatik atzo egiteko zen bertso antzerkia atzeratu egin da. Irauliak adieraziko du zer egunetan izango den. □

GARAJE ITXIA SALGAI

25m². Izpizua Kalea 19.
Prezioa, 29.000 euro.
Interesatuak deitu:
943-551026

Esko ezazu
HERNANIKO
BERRIAK
TXARTELA



eta eraman aterki
bat OPARI.

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA



MERKATARITZA eta
OSTALARITZAK, herri
giroa sortzen dute.

Gabonetan egin zure
erosketak Hernanin.

MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.

Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berritu ditu bere instalazioak eta inauguratza dijoa. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekuak. Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealeku, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia





Joxe Angel Aranburu bertsotan Sandiusterrin. Orkolagako gazteak saio polita egin zuen.

Bertso saio ederra Sandiusterrin

PEÑAGARIKANO, Lujanbio, Aranburu, Arzallus, Miner eta Iturriagak bertso saio polita egin zuten larubatean, Bertsolatako jaialdi nagusian. Publikoak ere oso ondo erantzun zuen eta aretoa bete egin zen.

Bertsolariek urteari errepasoa eman eta urea eta ikatza partitzea egokitut zitzaien hasieran. Gero, bakarka eta ofiziotan aritu ziren, Aritz Zerainen agindura. Ustekabeko bisita ere izan zen Sandiusterrin. Saio

bukaera aldera Txirrita bera azaldutzen Maialen Lujanbiori zorionak eman eta beste zenbait kontu esatera. Elkarrizketa polita egin zuten biek.

Bertsolata Urte Zaharreko errondarekin bukatuko da. □



Karobi elkartean, tute txapelketako sarituak direktibako kideekin.



HITZ BITAN

✓ IPUI KONTALARIA

Ipuiak gaur liburutegian. Lur Korta ipui kontalaria ariko da gaur Biterin. 11:00etan 3-4 urteko umeentzat eta 11:30etan, 5-7 urte artekoentzat.

➔ JASOTA BEZALA

HAU EZ DA BROMA...

Atzo, Hernaniko Elkartzenek inuxenteen eguna ospatu zuen. Eguerdian zehar eta alde zaharrean jarritako kartel eta panfleto ugariei esker Udaletxeak Etxebizitza Parke Publiko bat sortzea asmoa zuela sineztaratzetan sainatu ginen. Baino, noski, ziria zen. Beste bat askoren artean.

Gaur, egun xelebre hau pasa ondoren, panfletoek ziotena txantxa ez dela aldarrikatu nahi dugu. Hernanik etxebizitza lortzea ia luxu bat da, prezio ikaragarriak daude eta langile gehiengoan soldatua txikiaren zati handiena prestamoa edo alokairua ordaintzeko erabili behar dugu (askorentzat ezinezkoa da). Babes Ofizialeko Etxeek ez dute irtenbidea eskeintzen, eskaera oso handia delako eta diru sarrera txikiak dituztenak kankoan gelditzen direlako. Hernaniko etxe hutsen kopurua mingarria da, baina ez dira merkatu ateratzen ez bada prezio eta alokairu ikaragarriekin. Inmobiliariak, konstruktoreak eta banketxeak guzti honetaz balitzten dira negozioa egiteko, politikoen laguntzarekin.

Elkartzenen ustez, eta hernanik etxebizitzaren egoerari aurre egiteko, ezinbestea ikusten dugu hernaniko Udaletxeak guzti hau martxan jartzear.

1. Etxebizitza kopuru handi bat merkatu logikatik kanpo mantentzea.

2. 2004ko aurrekontuen %5 lurra eroskeko edota etxebizitzak eroskeko erabiltzea alokatzeo helburarekin.

3. Etxe hutsen gaineko presio fisikala %50ean handitzea.

4. Etxebizitza komunitarioko proiektu bat bultzatzea.

5. Lur Antolamenduan etxebizitza publikoak aurrikustea bere jardueran.

6. "Etxebizitza kontseilua" sortzea herriko eragile desberdinak bertan parte hartuz.

7. Etxebizitza Parke Publikoa sortu behar luke:

- Alokairuko etxebizitza parke publikoa.
- Etxebizitza parkea kudeatzeko entitatea.

Gure ustez gizartea nahiko sensibilizatuta dago gai honen inguruan (denok kexu bizi gara etxebizitzen prezioekin eta prestamoekin) baina ez dugu behar den presioa egiten gure agintariekin irtenbidea jarri dezaten. Azken batean, etxe batean bizitzea denon eskubidea da, ez luxua, ezta kapitxoa ere.

Paolo Malpetti Botti
Hernaniko Elkartzeneko kidea

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak:

943 550093

► Udaltzaingoa:

943 333288

► DYA:

943 464622

► Anbulatorioa:

943 006666

► Jokalari anonimoak:

943 331103

+ FARMAZIAK

ASTELEHENEA

► Egunez: Etxebeste
Elkano 2
Tel.: 943 552087

► Gauez: Tanco
Urnieta. San Juan 36
Tel.: 943 550942

ASTEARTEA

► Egunez: Bilbao-Sagas
Urbia 7
Tel.: 943 552941

► Gauez: Bilbao-Sagast
Urbia 7
Tel.: 943 552941

2004



kronika

2004ko egutegia salgai

2 euro

Dobera eta Hernaniko Kronikan.
Zinko Enea, Konde eta Plaza Berri kioskoetan.

Sebas eta Iruretagoienan.
Dorronsoro, Bikain eta Antziola okindegietan.

brintza



Brintza, S.L.

Lan aholkularitz
Aholkularitz fiskalak
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbia 15
Tel.: 943 331267
Fax: 943 330892
20120 Hernani